

2006ko urriko Drogeteniturririko 139. zenbakian.
Alazne Aiestaran

Maite Fernandez eta Inma Pagaldai: “Banku hau denontzat da mesedegarri”

Tokiko garapenari buruzko ikastaroa egin eta bertan sortu zuten Auzopolis, denboraren bankua. Egitasmoa hainbat herrialdeetan martxan dago. Ermuan urriaren 10ean aurkeztu zen 60 lagunuen aurrean baina etorkizunean Deba Barrenera hedatzea da asmoa.

Zer da denboraren bankua?

Denbora trukatzeko bankua. Norbaitek denbora behar duenean hartuko du eta ahal duenean emango du, trukeak egiteko neurria ordua izanik. Hau da, eguneroko beharrianak konpontzeko laguntza jasotzen duzu eta trukean, denbora eskaintzen diezu beste batzuei. Leloa zera izan daiteke, “hobeto bizi norbera eta hobeto bizi izaten lagundu”. Banku hitzak daukan zentzuarekin ez doa oso ondo, banku hau denontzat delako mesedegarria, eta guk ezagutzen ditugun bankuak ez dira horrelakoak.

-Adibidez?

Demagun, baserritar batek laguntza eskatzen duela eta horren truke, baserritarrak umeei baserria erakutsi edo gazta egiten badute, gazta nola egiten den erakutsi ahal die bere debora eskainiz.

-Banku honetan denbora da trukatzeko dena, ez dirua. Baina, egiten den horrek dirua eskatzen badu?

Zerbitzuak gastuak eragiten baditu, zerbitzua eskatzen duenak ordainduko ditu. Esaterako, norbaitek etxe berria erosi duelako afari berezi bat egin nahi du. Arrain zopa, txipiroiak eta sagar pastela egin nahi ditu eta horretarako guri deitzen digu. Osagaiak erosi egin behar dira eta gastu horiek bere kontura izango dira. Hala ere, gure lana bitartekari lana egitea da, beraz, horrelakoak argi utziko dira hasieratik.

-Gehiegikeriak sahiesteko neurriak hartu dituzue?

Krediturik handiena 20 ordukoa da. Hortik aurrera ez dago pasatzerik, salbuespenak ez badira.

-Nori zuzenduta dago?

Bazkideek 18 urte baino gehiago izan behar dituzte baina gutxiago dituztenek ere parte har dezakete, beti ere gurasoen baimenarekin. Proiektu honek dituen arauak onartzen dituzten guztiei dago zuzendatuta.

-Auzopolis izena jarri diozue.

Polis grekoz hiria da. Lehen baserri giroan zegoen onena gurera ekarri nahi izan dugu. Pertsonen arteko harremana indartu, eguneroko bizimodua

2006ko urriko Drogeteniturririko 139. zenbakian.

Alazne Aiestaran

erraztuz. Auzopolis pertsona eta kulturen arteko bilgunea izan behar da eta ekimen bateratzailea. Bertako harremanak simetrikoak dira eta baldintzarik oinarritzkoena zera da, norberaren denborak besteenak beste balio duela pentsatzea. Hau da, 4 eman eta 4 jasoko dira, ez dugu interesik ordaintzen.

-Zenbat jendek eman du izena eta zein zerbitzu eskaintzen dira orain arte?

20 bat lagunek eman dute izena. Momentu honetan honako zerbitzuak eskaintzen ditu Auzopolisek: umeak eta adineko pertsonak zaintzea, ileapaintzea, odontologia, brikolajea, ingelesez, frantsesez, euskaraz eta gaztelaniaz mintzapraktikak, joste lanak, sukaldaritza, aholkularitza eta laguntza etxeko arlo ezberdinetan, furgoneta edo kotxe zerbitzua, informatika eta norberak eskaini nahi duena.

-Zer eskatzen zaio kontu honetan parte hartu nahi duenari?

Oinarria konfidantza da. Horretarako derrigorrezkoa da ezagunak izatea. Aurrerantzean, noizean behin bazkideok kafea hartzeko geratzea da asmoa, guztien arteko ezagutza areagotzeko. Bazkide egitea beharrezkoa da eta doanekoa. Guk informazioa behar dugu bankuak zer eskaintzen duen jakiteko, horretarako elkarrizketak egiten dira. Bazkide egin nahi duenak astelehenetik ostiralera arratsaldeko 5etatik 8etara Zubiaurre 22ko egoitzan aurki gaitzake edo ordu berean 695 777 986 telefonora deituta.